

**17/2018 TXOSTENA, URRIAREN 3KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****HELBURUA: DEKRETU-PROIEKTUA, SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOAREN ESTATUTUAK ONARTZEN DITUENA.****I.- AURREKARIAK:**

2018ko irailaren 11n, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari eskatu zion, telematikoki, kide anitzeko organo horrek *SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia* zuzenbide pribatuko ente publikoaren estatutuak onartzen dituen dekretu-proiektuaren nahitaezko txostena egitea (SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia, hemendik aurrera SPRI-EGEA)

Espediente elektronikoan, hauek sartu dira: 2018ko ekainaren 4ko Agindua, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, xedapen orokor bat egiteko prozedurari hasiera ematea adostu zuena; lehen dekretu-proiektuaren lehen bertsioa, 2018ko maiatzaren 31koa; arau-proiektuaren justifikazio-memoria; Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena; dekretuari buruzko txosten ekonomikoa; Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko ekainaren 26ko Agindua, dekretu-proiektua onartzen dituen, eta lehen dekretu-proiektuaren bigarren bertsioa, 2018ko abuztuaren 13koa. Espedientean, zentro ezberdinei egindako eskaera ere jasotzen da, horien txostena dekretua onartu baino lehen behar baita.

II-KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK**1.a.- Aholku Batzordearen eskumena**

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Kontratazio Araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. a) 1 artikuluan, eskumen hau ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku

Batzordeari: informatzea Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak.

Uztailaren 27ko 116/2016 Dekretu horrek hau ezartzen du, 20.2a) artikuluan: Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrari dagokio, besteak beste, xedapen-proiektuei buruzko aholkularitza-eginkizuna, baldin eta kontratazioaren alorrekoa bada eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateak sortzea edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko entitateen egitura organikoa eta funtzionala arautzea badute xede.

SPRI-EGEA abenduaren 22ko 5/2017 Legearen Hamahirugarren Xedapen Gehigarriaren bidez sortu zen -abenduaren 22ko 5/2017 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen-.

Aipatutako Hamahirugarren Xedapen Gehigarriaren 1. apartatuan ezartzen denaren arabera, <<SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia sortzen da, zuzenbide pribatuko ente publiko gisa eratzen da, nortasun juridiko propioa eta bere helburuak lortzeko jarduteko gaitasun osoa dituela, eta industria-politika eta enpresen lehiakortasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita>>.

Aipatutako Hamahirugarren Xedapen Gehigarriaren 2. apartatuaren arabera, <<SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko ente publikoei aplikatzekoak zaizkien lege-xedapenen bidez arautuko da, xedapen honetan ezarritako berezitasunetan izan ezik, bai eta bere estatutuen bidez ere. Estatutuok Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez onartuko dira, industria-politika eta enpresen lehiakortasunaren arloan eskuduna den sailak proposatuta. Entearen jarduerari Zuzenbide Zibileko, Merkataritza Zuzenbideko eta Lan Zuzenbideko arauak aplikatuko zaizkio, administrazio-ahalak baliatzen dituenen izan ezik, kasu horretan administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidea erregulatzen duen araudia eta gainerako araudi orokor eta sektorial publikoa aplikatuko baitzaizkio>>.

Horrelako araei dagokien bezala, dekretu-proiektuaren xedapenek antolaketa-eduki handia izaten dute, eta, ildo horretan, azpimarratzekoak dira kontratazioaren arloari lotutako alderdiak, dekretu-proiektuan eranskin gisa jaso diren SPRI-EGEaren estatutuen 1.2, 5.b) eta d), 9.1.k) eta 11.4.f) artikuluetan erregulatzen direnak.

Lege horri jarraikiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Kontratazio Araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Legearen 27.a).1 eta 30.2.a) artikuluen babesean, txosten hau ematen da, aipaturiko arauetan xedatutakoa betetzeko. Txosten honek soil-soilik eragiten die proiektuan sektore publikoaren kontratazioaren araubide juridikoari eragiten dioten alderdiei, Kontratazio Publikoaren Aholkularitza Batzorde honen eskumena kontratazio publikoaren gai propioetara mugatzen baita.

2ª.- SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren kontratazio-jardueraren araubidea.

Bat etorritz Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartu dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legearen Hamahirugarren Xedapen Gehigarriarekin, hau adierazten da dekretu-proiektuan eranskin gisa jaso diren SPRI-EGEaren estatutuen lehen artikulua 1. apartatua: *SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko ente publikoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Sailari dago atxikita; erakundeak industria-politikaren eta enpresen lehiakortasunaren arloko eskumena du, berezko nortasun juridikoa du eta erakundea sortzeari buruzko legeak, estatutu hauek eta indarrean dauden gainerako legeek esleitu dizkieten xede eta helburuak betetze aldera jarduteko gaitasun osoa du.*

Hau eransten da dekretu-proiektuan eranskin gisa jaso diren SPRI-EGEaren estatutuen 1. artikulua 2. apartatua: *<<SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren jarduera, kanpoko harremanetan, oro har, zuzenbide zibilaren, merkataritza-zuzenbidearen eta lan-zuzenbidearen pean egongo da, salbu eta Administrazio Zuzenbidearen mende dauden administrazio-ahalak gauzatzea inplikatzan duten egintzetan. Kasuan kasuko gaiaren arabera aplikagarri den araudi publikoaren arabera jardungo du, besteak beste, bere barneko harreman eta antolaketari loturiko gai hauei dagokienez, hala aurrekontuaren, kontabilitatearen,*

ondarearen eta kontratazioaren araubideari dagokienez nola beren zerbitzuak entean ematen dituzten langile funtzionarioei dagokienez. Funtzionarioen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako funtzio publikoaren araudia aplikatuko da>>.

Kontratazio-arloan aplikatu beharreko izaera publikoko araudiari dagokionez, honako aipamen berezi espresua egitea aholkatzen da, segurtasun juridikoaren ondorioetarako: kontratazioaren arloan, SPRI-EGEari kontratazio publikoaren arloko legeria eta hura garatzen duen araudia aplikatuko zaizkio. Hala bada, txosten hau ematen dugun unean Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea da aplikatzekoa (hemendik aurrera, SPKL); horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Hau ezartzen da dekretu-proiektuaren eranskin gisa jasotzen diren SPRI-EGEaren estatutuen 5. artikuluan: <<SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIAK bere helburuak betetzeko dituen eskumenak baliatu ahal izango ditu, eta honako jarduketa hauek garatu:

...

b) Merkataritza-trafikoko jarduera ekonomiko eta finantzarioak egitea, kontratuak egitea eta zerbitzuak ematea, hargatik eragotzi gabe Administrazio Institutuzionalaren barneko ente bezala aplikagarri zaizkion araudia eta baldintzak.

...

d) Administrazio publikoekin eta sektore publikoko enteekin lankidetzahitzarmenak eta kontratuak izenpetzea, baita ente pribatuekin ere.

> <>

b) letran –"zerbitzuak ematea"–, egindako aurreikuspenean, ez da adierazten zer lotura juridikoren bidez emango litzatekeen zerbitzu hori. Horri buruz, kontuan hartu behar da kontratazio publikoaren arloko legerian eta hura garatzen duen legerian exijitutako betekizunak bete beharko direla baldin eta aurreikusten bada SPRI-EGEAK zerbitzuak eman ditzakeela Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren botere esleitzailen bitarteko propio pertsonalizatu gisa, botere esleitzaille horiek egindako enkarguen bidez.

3.a- Kontratazio-organoa.

Honako hau xedatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 6. artikuluan:

<<Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organoak; eta erakunde autonomoetan eta Administrazio Orokorrean ez beste erakundeetan, berriz, ordezkaritza nagusia duten organoak, salbu eta besterik xedatzen ez bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan, edo erakunde horiek sortzeko edo haien funtzionamendua zehazteko arauetan>>.

Dekretu-proiektuan eranskin gisa jaso diren SPRI-EGEaren estatutuen 9.1 artikulua dionari jarraikiz, honako hauek sartzen dira SPRI-EGEaren Administrazio Kontseiluaren funtzioen artean: *<<k) Gastuak baimentzea, ordainketak egitea, kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak esleitzea eta gauzatzea sektore publikoko kontratuen edo ondare-legeriaren mende dauden kontratuetan, betiere horien eskumena ez bada Zuzendaritza Orokorrarena>>.*

Hau eransten da SPRI-EGEaren estatutuen 9. artikulua 2. apartatuan, dekretu-proiektuaren arabera : *Administrazio Kontseiluak Zuzendaritza Orokorrari delegatu ahal izango dizkio gainerako funtzioak, salbu eta aurreko d), g), l) eta m) letretan adierazitakoak. Funtzio bat Zuzendaritza Orokorraren esku geratzen bada jarraikako bi urteetan, Administrazio Kontseiluak espresuki erabaki beharko du nori esleituko zaion funtzio hori, eta, horretarako, estatutuak aldatu beharko ditu.*

Hona zer dioten Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak 2018ko ekainaren 25eko txostenean dekretu-proiektuaren lehen bertsioan, 2018ko maiatzaren 31koan, Administrazio Kontseiluarentzat proposatutako funtzioei buruz: interpretatu daiteke 1.f) funtzioa- *Jardueren urteko memoria onartzea- 9.1.d) funtzioaren barruan dagoela - Aurrekontuen eta egoera finantzarioen behin-behineko aurrekontua egitea eta onartzea, baita ente publikoaren jardueren urteko memoria egitea eta kontuen likidazioa formulatzea ere.*

Onartu da Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak egindako alegazio hori, eta lehen dekretu-proiektuaren bigarren bertsioan sartu da, 2018ko abuztuaren 13koan. Horregatik, aurreko f) letran jasotako funtzioa desagertzean, hasiera batean hurrengo letretan adierazita zeuden funtzioak letra ezberdinetan sartu dira. Ondorioz, dekretu-proiektuan eranskin gisa jaso diren SPRI-EGEaren estatutuetan 9. artikulua 2. apartatuak dioena aldatu behar da, honela: <<salbu eta aurreko d), g), l) eta m) letretan adierazitakoak>> esan ordez, <<salbu eta aurreko d), f), k) eta l) letretan adierazitakoak>> esan behar da.

Dekretu-proiektuan eranskin gisa jaso diren SPRI-EGEaren estatutuen 11.4 artikulua dioenari jarraikiz, honako hauek sartzen dira SPRI-EGEaren Zuzendaritza Orokorraren funtzioen artean: <<f)>> *Gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea, eta kontratazio-organoen ahalmenak esleitzea eta gauzatzea hala sektore publikoko kontratuen legeriaren mende dauden kontratuetan, nola ondare-legerian erregulatutako prozedura, egintza eta negozio juridikoetan, betiere horien balioa 2.000.000 euro edo gutxiagokoa bada, salbu eta enpresa-ondarea eskuratzeko edo besterentzeko kasuetan, halakoetan azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuz onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren VII. tituluaren arabera jardungo baita.*

Gutziz partekatzen dugu Kontrol Ekonomikorako Bulegoaren 2018ko irailaren 17ko txostenean, ekonomiaren eta araudiaren kontrol ekonomikoari buruzkoan, adierazitakoa, non proposatzen baitzen egokia izan daitekeela paragrafo ezberdinetan azaltzea aurrekontu-kudeaketari buruzko eginkizunak eta kontratazio-prozedurari buruzkoak. Prozedura horretan, hau ezartzen da SPKLaren 117.1 artikuluan: << *Kontratazio-espeditentea osatu eta gero, arrazoieta oinarritutako ebazpena emango du kontratazio-organoak, espeditentea onartzeko, eta esleipen-prozedura irekitzea xedatzeko. Ebazpen horrek gastua onartzea inplikatu du...>>.*

SPKLaren 326 artikuluan, kontratazio-mahaiak erregulatzen dira, kontratazio-organoari laguntzeko kide anitzeko organo gisa. Aipatu Legearen azken xedapenetako lehenarekin bat etorritik, 326. artikulua hori ez da oinarritzeko legeria.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. eta 9. artikuluek kontratazio-mahaien erregulazio berri eta oso bat xedatzen dute. Lehenak kide anitzeko organo horien osaera arautzen du, bai eta kideen izendapena ere; bigarrenak, berriz, organoaren funtzioen irismena zehazten du.

8. artikulua xedatzen du, oro har, prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publikitatedunetan kontratazio-organoei kontratazio-mahai baten laguntza izango dutela, eta mahai horren eskumena izango dela eskaintzen balorazioa egitea, eta, halaber, kontratazio-organuari egokituko zaiola kontratazio-mahaiko kideak izendatzea, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria izan ezik, hura Bulegoaren titularrak aukeratuko baitu.

Kontratazio-mahaiko kideak behin betiko izenda daitezke, edo berriaz ere bai, justu kontratu bakoitza adjudikatzeko. Era berean, zehazten da kontratazio-mahaiko kideak behin betiko izendatzen badira edo mahaiari kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularraren eta kasuan kasuko sailaren titularraren edo erakundea atxikita dagoen sailaren titularraren baterako agindu bidez eratuko dela kontratazio-mahaia, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela.

Aurrekoari lotuta, iradokitzen da balioestea ea egokia izan daitekeen lehen dekretuaren testuan SPRI-EGEaren kontratazio-mahaiaren erreferentzia espresua egitea, zehazki organo horren estatutuen artikulatuaren barruan. Kontuan hartuta SPRI-EGEaren izaera –Administrazio Publikoaren kontsiderazioa duen botere esleitzalea da–, Euskal autonomia Erkidegoko araudian kontratazio publikoaren arloan ezarritakoaren arabera eratu beharko da nahitaez, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubidearen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikuluen arabera, hori baita txosten hau ematen den unean gaiari buruz indarrean dagoen araua.

III.- ONDORIOA

Kontuan hartuta esandakoa, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio dekretu-proiektuaren edukiari, zeinaren bidez onartzen baitira SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL

AGENTZIAREN ESTATUTUAK. Horretarako, txosten honetan emandako gidaleroak eta aholkuak aplikatu beharko dira estatutuen edukian.